



ATAUNGO UDALA

AUZOETA KIROLDEGIA ERABILTZEKO PROZEDURA

Segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen jarraitu beharrean gaude oraindik puska batean, eta, bestek beste, eraikin itxietan aforoa mugatu beharra dago. Hori dela eta, Auzoeta kiroldegia erabiltzeko, prozedura hau jarraitu beharko da:

- 1.- Udaletxera deitu (943180011) eta txanda hartu. Astean, gehienez, ordubeteko hiru txanda hartu ahal izango dira, eta, aldi bakoitzean, bi asterako erreserba egin ahal izango da (guztira, 6 ordu).
- 2.- Txandei dagokien ordutegirako giltza elektronikoa aktibatuko da udaletxean. Giltza hartzeko, 10 euroko fidantza utzi beharko da.
- 3.- Giltzaren arduradunarekin beste lau lagun sartu ahal izango dira. Giltzaren jabeak izango du berarekin joaten direnen ardura.
- 4.- Txanda berean bi giltza aktibatuko dira; beraz, kiroldegian, aldi berean, 10 lagun ibili ahalko dira, gehienez.
- 5.- Udalak kiroldegia egunero garbituko du; erabiltzaile bakoitzaren ardura izango da segurtasun- eta higiene-neurriak betetzea.
- 6.- Arauak betetzen ez dituenari baimena kenduko zaio.

Mesedez, arduraz jokatu eta errespetatu arauak, denon onerako da-eta.

Ataunen, 2020ko irailaren 8an.

